



## **IRAKASLEEN EBALUAKETAREN EMAITZAK**

**2012-2013KO HASIERAKO GALDEKIZUNEN ETA 2014-2015EKO  
BUKAERAKO GALDEKIZUNEN ARTEKO ALDERAKETA**

### **EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK**

**(Jarraipeneko fasean dauden herriak)**

Galtzagorri Elkarte  
2015eko azaroa



## AURKIBIDEA

	Orria
1. SARRERA .....	2
2. BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA .....	2
3. METODOLOGIA .....	3
4. EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK .....	4
5. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK	
5.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila .....	5
6. HAUR LITERATURAREN BALIABIDEI BURUZKO EZAGUERA .....	6
7. HAUR LITERATURAREN EZARPEN SISTEMATIKOA	7
ESKOLAREN CURRICULUMEAN	
7.1. Jarduera literarioak egitea .....	7
7.2. Jarduera literario mota .....	8
8. IPUINA KONTATZEKO ESTRATEGIAK .....	9
9. JARDUERA LITERARIOAN INGURUKO BALDINTZEN KONTROLA ....	10
10. ESKOLAREN HAUR LITERATURAKO BALIABIDE MOTA .....	11
11. HAUR LITERATURARI BURUZKO FORMAIZIO ETA	
INFORMAZIOAREN HOBEKUNTZA .....	12
12. HARREMANAK UDAL LIBURUTEGIAREKIN	
11.1. Liburutegira joatea (maiztasuna) .....	13
13. ALDERAKETAREN LABURPENA .....	14

## 1. SARRERA

- Txosten honetan jarraipen faseko irakasleen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazioa 2012-2013. ikasturtetik 2014-2015. ikasturtera egitasmoan parte hartu duten 6 urteko haurren irakasleei egin zaie. Herri hauetako ikastetxeetako irakasleek erantzun dute bukaerako galdekizun hau:
  - Amurrio
  - Ermua
  - Oñati
  - Tolosa
  - Laudio
  - Legazpi
  - Donostia
- Ebaluazioa 2014-2015. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan eginda.
- Galdekizunak herri horietako 12 ikastetxeetako 6 urteko haurren irakasleei banatu zaizkie. Guztira, **69 irakaslek** erantzun dute

## 2. BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUAK

- Bularretik Mintzora egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa aztertu. Hau da, egitasmoa abian jarri zenetik, zer nolako aldaketak eman diren, irakasleen iritziz, haurren irakurketa ohituretan eskolaren esparruan.
- Haur Literaturari buruzko zaletasun mailaren aldaketa aztertu.
- Haur Literaturako baliabideei buruz irakasleek lortu duten ezaguera maila aztertu.
- Irakasleen irakurzaletasuna finkatzeko erabiltzen dituzten ohiturak eta estrategiak baloratu
- Haur Literaturako baliabideei dagokionez, eskolan eman diren aldaketak aztertu.
- Ikastetxeko irakasleen eta Udal Liburutegiaren arteko harremanen maiztasuna aztertu.

### 3. METODOLOGIA

- Bukaerako egoera ebaluatzeko, irakasleei galdekizun bat pasa zaie. Honetan, 8 aldagai orokor kontutan hartu dira:

#### 1. Irakurketarekiko jarrerak

- Irakaslearen irakurzaletasun maila

#### 2. Haur Literaturaren baliabideei buruzko ezaguera

#### 3. Haur Literaturaren ezarpen sistematikoa eskolaren curriculumean

- Jarduera literario mota

#### 4. Ipuina kontatzeko estrategiak

#### 5. Jarduera literarioan inguruko baldintzen kontrola

#### 6. Eskolaren Haur Literaturako baliabide mota

#### 7. Haur Literaturari buruzko formazio eta informazioaren hobekuntza

#### 8. Harremanak Udal Liburutegiarekin


- Liburutegira joatea (maiztasuna)
- Bukaerako galdekizunak guztira 9 galdera ditu.
- Galdekizunak 12 ikastetxeetan banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen diren bukaerako emaitzak, 2014-2015. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan lortu dira eta 2012-13. ikasturtean jasotako hasierako emaitzekin konparatu dira.
- Ondoren, atalez atal, aurkezten dira emaitzak.



## 4. EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK

## 5. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK

### 5.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila



Orain irakasle gutxiago dago Haur Literatura “asko” atsegin duena (**% 10 gutxiago**)


Irakasleen irakurzaletasun mailari dagokionez, emaitzak ezkorrak izan dira, orain % 10 gutxiago direlako haur literatura “asko” atsegin dutenak.

**Ondorioa:** *Zaletasun maila gutxitzearen arrazoa honakoa izan daiteke: egitasmoaren formazioan parte hartu ez duten zenbait irakaslek erantzun dute bukaerako galdekizuna eta, hasierakoekin konparatuz, horien jarrerak “ezkorragoak” izan dira. Seguru aski, horregatik egin du behera bukaerako emaitzen batezbestekoak. (\*)*

(\*)Bukaerako galdekizuna bete duten 69 irakasleen “finkotasuna” ez da kontrolatu. Hau da, lagina osatzerakoan, nahiz eta 6 urteko haurren gelako irakasleak kontuan hartu, ez da zehazki kontrolatu irakasle horiek ote ziren egitasmoaren formazio osoa egin dutenak. Ez dakigu irakasle hauek ikastetxe horietan finko ote dauden.

Datu honek txosten honetan azaltzen diren datu guztiak “baldintzatu” ditu, norabide negatiborantz bideratuz.

## 6. HAUR LITERATURAREN BALIABIDEEI BURUZKO EZAGUERA




**% 68ak** dio HLren baliabideei buruzko informazio “nahikoa” eta **%32ak** “asko” hobetu dela Bularretik Mintzora egitasmoari esker

Aldagai honek aldakortasun baikorra izan du. Orain, irakasleen HLko baliabideen ezagutza maila nahiko edo asko hobetu da.

**Ondorioa:** *Emaitza honek erakusten du irakasleek informazio gehiago dutela Bularretik Mintzora egitasmoari esker. Ebaluatuak izan diren eskoletan HLko baliabideak banatu eta ezagutarazi dira eta irakasleei informazio hori pixkanaka iristen ari zaie.*

## 7. HAUR LITERATURAREN EZARPEN SISTEMATIKOA ESKOLAREN CURRÍCULUMEAN

### 7.1. Jarduera literarioak egitea



Orain, **% 95ak** eskolan jarduera literarioak egiten ditu, lehen baino **%1 gehiago**


Aldagai honen alderaketa, nahiz eta txikia izan, baikorra da. Orain ia irakasle guztiek onartzen dute jarduera literarioak sistematikoki egiten dituztela; hasieran baino **%1 gehiago** dira beraz. Oso gutxi dira, ordea, % 5a, jarduera literarioak egiten ez dutenak.

**Ondorioa:** *Emaitza honek adierazten du, nahiz eta ehuneko txikian izan, egitasmoak duen helburu garrantzitsuenetako bat gauzatu dela ebaluatuak izan diren ikastetxeetan: hau da, eskolaren curriculumean, haur literatura sistematikoki ezartzea.*

*Kontutan izan behar da hasierako abiapuntua oso altua izan zela: % 94ak, ia guztiek lehendik aitortzen zuten jarduera literarioak sistematikoki egiten zituztela. Horregatik ere, aldagai hau handitzeko aukera txikia zen.*



## 7.2. Jarduera literario mota




Orain jarduera literario mota gehienak maiztasun gutxiagoarekin egiten dituzte sistematikoki eskoletan, “haur poesia errezipitatu” izan ezik

Orain, ia jarduera mota guztiak maiztasun gutxiagoarekin egiten dituzte irakasleek eskolan, “haur poesia errezipitatu” izan ezik. Jarduera honen maiztasuna **%10ean** hazi da.

**Ondorioa:** Aldagai honen alderaketa ez da zentzuzkoa, irakurzaletasuna sustatzeko edozein egitasmoren aurka dagoelako. Horregatik, emaitza ezkor honen arrazoiak, hasieran aipatu dena da; bukaeran erantzun duten irakasleen kontrol ezarena alegia. Erantzun dutenetako asko ez dira ziur aski BMko formazioa egin duten irakasle berberak.

## 8. IPUINAK KONTATZEKO ESTRATEGIAK




Orain ipuinak kontatzeko estrategia ia guztien erabilpena gutxitu egin da hien gutxitu den estrategia “keinuak erabiltzearena” da (*%30a gutxiago*)

Ipuina kontatzeko estrategien erabilpenari dagokionez, ia guztiak gutxitu dira.

**Ondorioa:** *Aldagai honen alderaketa ere ez da zentzuzkoa, aurrekoarekin gertatu den bezala, hemen ere bukaeran erantzun zuten irakasleen laginaren ezaugarriak eragin itzela izan du emaitza honetan.*

## 9. JARDUERA LITERARIOAN INGURUKO BALDINTZEN KONTROLA



- Orain ipuina kontatzerakoan, inguruko hiru baldintzak zerbait gehiago kontrolatzen dituzte
- Gehien hobetu den baldintza, “erlaxatua eta motibatua egotea” da


Orain, irakasleek, ipuina kontatzerakoan inguruko baldintzen kontrolari garrantzi handiagoa ematen diote; “isiltasuna egotea”, orain **%2 gehiagok** kontrolatzen dute; “arreta erabatekoa izatea”, **%8 gehiagok** eta “erlaxatua eta motibatua egotea”, **%30 gehiagok**.

Azken hau, gehien hobetu den baldintza da.

**Ondorioa:** *Datu horiek adierazten dute orain irakasleek kontakizunaren kalitatea gehiago zaintzen dutela, momentu garrantzizkoa dela uste dutelako, ongi kontatu nahi dutelako. Horrez gain, ipuin bat kontatzerakoan, norberaren egoera psiko-afektiboari garrantzia emateak, norbera erlaxatua eta motibatua egoteari, kontakizunaren kalitatea bermatzen du, irakurzaletasunaren sustapena ikasleengan bermatuz.*

*Bularretik Mintzorako formazio ekimenek, eta, zentzu honetan, eskaini diren hainbat gomendioek eragina izan dutela ondorioztatu daiteke.*

## 10. ESKOLAREN HAUR LITERATURAKO BALIABIDE MOTA



Bukaerako ebaluazioaren emaitzen arabera, haur literaturako baliabide ugariak, orain, “aho korapiloak eta hitz jokoak”, lehen baino **%32 gehiago** eta “bideoak eta DVDak”, lehen baino **%8 gehiago** dira.


Beste baliabideei dagokienez, ugaritu direnak honakoak dira: “sehaska kantak”, lehen baino **%21 gehiago** eta “haur poesia”, lehen baino **%5 gehiago**.

Aldiz, gutxitu diren baliabideak hiru dira: “egungo ipuinak”, lehen baino **%15 gutxiago**, “ipuin tradizionalak”, **%24 gutxiago** eta “irudidun albumak”, **%7 gutxiago**.

**Ondorioak:** Ugaritu diren baliabideak “haur txikiarentzat” identifikatzen direnak dira; sehaska kantak, aho korapiloak, hitz jokoak, haur poesia... Bestetik, teknologia berriekin zerikusia duten baliabideen hazkundera eta era guztietako ipuinen jaitsierak aditzera ematen du irakasleek haur txikiarekin lan egiten egongo balira bezala erantzun dutela.

Hemen ere, erantzun duen irakasle laginaren ezaugarriak baldintzatzen ditu emaitzak.

## 11. HAUR LITERATURARI BURUZKO FORMAZIO ETA INFORMAZIOAREN HOBEKUNTZA




Irakasle gehienek diote “nahiko” hobetu dela Haur Literaturari buruzko formazio eta informazio maila

Irakasleen gehiengoak, **%81ak** hain zuzen ere, uste du haur literaturari buruz duen formazioa eta haur literaturaren inguruko informazio espezializatua “nahiko” hobetu dela. Aldiz, beste **% 19ak** uste du, “gutxi” hobetu dela. Ez dago inor ezer ez dela hobetu uste duenik.

**Ondorioak:** *Irakasleek orain formazio eta informazio gehiago dute BM egitasmoari esker. Formazio saioetan ezagutu dituzten haur literaturako baliabideek – ipuina, poesia, haur kantak, ... – eta eman zaien informazioak –Galtzagorriko webgunea, aldizkariak, liburu gomendatuen zerrendak, ... -- eragin baikorra izan dutela argi dago.*

*Aldagai honen hazkunde baikorrak bermatzen du irakurzaletasuna suspertzerakoan oinarritzko zutabe den irakasleen formazioa eta informazioa lortzen ari garela.*

## 12. HARREMANAK UDAL LIBURUATEGIAREKIN



Bukaerako emaitzek diotenez, aldatu egin dira eskolek udal liburutegiarekin duten harremana.

Alde batetik, maiztasun handiarekin joaten direnak, hau da “astean behin edo birritan” doazenak orain %37 dira, lehen baino %5 gutxiago.

Bestetik, maiztasun txikiarekin joaten direnak, “urtean hiruzpalau aldiz”, orain %44 dira, lehen baino %27 gehiago.

**Ondorioak:** *Datu horien arabera, orokorrean, orain gehiago dira Udal liburutegira joaten diren ikasleak, baina maiztasuna zertxobait gutxitu da.*

*Zentzu honetan esan dezakegu BM egitasmoak haur eta irakasle gehiago erakarri dituela liburutegira.*

### 13. ALDERAKETAREN LABURPENA

Bukaerako ebaluazio honetan kontuan izan diren irakurzaletasuna definitzen duten **8 adierazleen** alderaketa, orokorrean, ez da baikorra izan, aldagai batzuen hazkundera ezkorra izan delako eta beste aldagai batzuk ez dutelako hobekuntzarik izan.

**Hobekuntza** izan duten aldagaiak 2 dira:

- Haur Literaturaren baliabideei buruzko ezaguera
- Jarduera literarioan inguruko baldintzen kontrola
- Haur Literaturari buruzko formazio eta informazioaren hobekuntza

**Hobekuntzarik izan ez** duten aldagaiak:

- Haur Literaturaren ezarpen sistematikoa eskolaren curriculumean
- Eskolaren Haur Literaturako baliabide mota
- Harremanak Udal Liburutegiarekin (Liburutegira joatearen maiztasuna)

**Alderaketa ezkorra** izan duten aldagaiak:

- Irakurketarekiko jarrerak (irakaslearen irakurzaletasun maila)
- Ipuina kontatzeko estrategiak

Beraz, 8 aldagaietatik, **3tan** hobekuntza izan da; beste **3tan** ez da hobekuntzarik izan eta **2tan** alderaketa ezkorra izan da.

**Ondorioa:** *Ebaluatuak izan diren Jarraipeneko Epean dauden 7 herri horien 69 irakasleen emaitza hauek ezin ditzakegu ontzat eman, hasieran aipatu den arrazoiarengatik; ez delako kontrolatu erantzun duten guztiek egitasmoaren formazio osoa egin zuten ala ez.*

*Gertakizun honek baldintzatu ditu txosten honetan azaltzen diren emaitzak. Beraz, ez dira fidagarriak.*

Galtzagorri Elkarte, 2015eko azaroa